

OSPA DEZAGUN BIZITZA



Lema 2025/2026

MOTIBAZIOA



“OSPA DEZAGUN BIZITZA” GOIBURUAREN SARRERA

Hasteko, ez dirudi “Ospa dezagun bizitza” goiburuak beste azalpenik behar duenik. Izan ere, hautatua izateko arrazoietakoa bat, hain zuzen ere, horixe izan zen ospakizunak hain geureak ditugu gizakiok ze ez dute azalpen beharrik. Haur txikiak ere badakite zer den festa bat. Ospatzea da antropologikoki gizakion ezaugarrietako bat da.

Baina badira bereziki nabarmendu nahi ditugun alderdi batzuk. Ospatu nahi duguna Bizitza delako. Eta ospatzeko modu asko daudelako, eta Marcelino Champagnaten balioekin eta estiloarekin egin nahi dugu, Jesusek eta Mariak nola egiten zuten erreparatu baitzuen. Horregatik, honako xehetasun hauek jarriko dugu arreta.




- Ospakizun ideiak lotura estua du komunitate edo familiaren ideiarekin. Beti norbaitekin ospatzen dugu. Urtebetetze festa batera, ezkontza batera edo graduazio akademiko batera gonbidatu egiten gaituzte edo gonbidatu egiten dugu. Inauteri egunean herrietako kaleak betetzen ditugu edo etxeetako jantokietan elkartzen gara Gabon gaueko afarirako. Familia espiritua da hain zuzen ikasturte honetan nabarmendu nahi dugun balio maristetako bat, gure hezkuntza eginkizunean hain funtsezkoa den komunitate eta anaitasun zentzua indartuz. La Vallako mahaiaren edo Hermitageko etxearen irudiak inspirazio iturri izan daitezke. Izan ere, Hermitageko etxea eraiki zeneko 200. urteurrena ari gara ospatzen. Aurreko bi ikasturteetako goiburuak (“Etxean zaude” eta “Kontatu nirekin”) anaitasuna garatzeko sarrera ederra izan ziren. Eta ikasturte honetako goiburuak berriz ere gonbidatzen gaitu, maristak garen aldetik, komunitateetan eta hezkuntza lanetan bizi den familia espirituari arreta jartzera.
- Ospa dezagun Bizitza une bakoitza aitortu eta baloratzeko, komunitate loturak indartzeko eta kide guztien ongizate integrala sustatzeko. • “Ospa dezagun Bizitza” goiburuak bizitzaren alderdi positibo eta alaietan fokatzera gonbidatzen du hezkuntza komunitate osoa. Berri txarrak nagusi diren mundu batean goiburu horrek jarrera baikor eta itxaropentsua sustatzen du, bertan alaitasuna beste Bizitza bat eta beste mundu bat posible delako lekukotasuna den (Flp 4, 4-5). Ospakizun guztien aurretik gonbidapena jaso ohi da. Ezkontza edo urteurren bat prestatzen dugunean, sortzen zaizkigun lehen galderak honako hauek dira: Norekin ospatu nahi dugu? Nor gonbidatuko dugu? Hezkuntza lan maristetan Jesusen irizpideak gailendu behar du. Frantzisko Aita Santuak ondo azaltzen zuen Lisboako JMn: “Elizan inor ez dago soberan, inor ez dago soberan, denontzako lekua dago, garen bezalakoak izanik, denontzat. Eta hori Jesusek argi eta garbi esaten du, apostoluak prestatu zuen jaun horren oturuntzarako dei egitera bidaltzen dituenengan. Honela dio: zoazte eta ekar itzazue denak, gazteak eta zaharrak, osasuntsuak eta gaixoak, zintzoak eta pekatoriak, guztiak. Elizan denontzako lekua dago, denontzat, denontzat”. Beraz, Bizitza ospatzeak aniztasuna eta pertsona bakoitzak gure gizarteari ematen dizkion esperientziak eta ikuspegiak ospatzea ere eskatzen du. Goiburu horrek topaketa, inklusio eta errespetuaren kultura sustatu dezake, non hezkuntza komunitateko kide bakoitza bere berezitasunagatik baloratua eta estimatua sentituko den. • Are gehiago, Jesusek oturuntzako irudia erabiltzen zuen Jainkoaren Erreinuaz hitz egiteko. Parabolan dio, lehen gonbidatuek eskaintzari uko egiten diotenean, erregeak bere morroiari esaten diola: “Irten berehala hiriko kale eta kale kantoietara, eta ekarri hona pobreak, elbarriak,itsuak eta herrenak” (Lk 14, 21). Mundu guztia, alegia; eta, batez ere, behartsuenak, baztertuta sentitzen direnak, Bizitza ospatzeko espazioak behar dituztenak, askotan, zentzurik aurkitzen ez diotelako.
- Marcelinoren misioa denei zuzendua zen, baina Montagne gaztearen esperientziatik jaio zen. Ez ditzagun ahaztu, beraz, baztertuta geratzen diren guztiak eta sufritzen dutenak,



jar ditzagun gure ospakizunaren erdigunean. Goiburu hori ez dadila izan guk ihes egiteko aitzakia, beste arrazoi bat baizik, Bizitzarekin eta, ondorioz, bakearekin, elkartasunarekin eta justiziarekin konprometitzeko.

- "Ospa dezagun Bizitza" goiburuak, gainera, ospatu beharreko bizitza hori zein den planteatzeko balio du. Gure gizartean, indibidualismoak, hedonismoak eta kontsumismoak markatutako bizitza ereduak sustatzen dira. Frantziskok Evangelii Gaudium-ean ohartarazten gaitu: "Egungo munduaren arrisku handia, bere kontsumo eskaintza anitz eta izugarriarekin, bihotz eroso eta zikoitzetik, azaleko plazerren bilaketa gaixotitik eta kontzientzia isolatutik sortzen den tristura indibidualista da. Barne bizitza norberaren interesen baitan ixten denean, jada ez dago lekuri besteentzat, jada ez dira pobreak sartzen, jada ez da Jainkoaren ahotsa entzuten, jada ez da haien maitasunaren poz gozoa gozatzen, ez da ongia egiteko gogo bizia nabarmentzen". Bizitza letra larriz idazten badugu, benetako bizitza proposatu nahi dugulako da, benetakoa, bidean den bizitza. Aurrefabrikatua eta sailkatua ez den bizitza. Bizitza irekia, bakoitzak bere dohainak aurkitu eta bokazioa gara dezan. Oparitu zaigun bizitza da, Bizitza oparoa, beraz (Jn 10,10). Ospatzea merezi duen bizitza, egin ditzakegun akats guztiak gorabehera. Beraz, Bizitza ospatzea lelo hutsa baino askoz gehiago da. Komunitatearekiko konpromisoa da, itxaropenerako gonbidapena, inklusiorako deia eta benetako bizitza osoaren etengabeko bilaketa. Jaia ospatzean

Bizitza, balio maristak goratzen ditugu eta elkarrekin etorkizun justuagoa, solidarioagoa eta itxaropenez betea eraikitzen dugu. Dei diezaiozun komunitate osoari ospakizun honekin bat egitera, bete-betean bizitzera eta espiritu hau gure ingurukoei kutsatzera.





EBANJELIOAN: Jesusek bizitza ospatzen du eta haren bizitza ospakuntzarako arrazoia da

Jesusi izugarri gustatuko zlitzaiokeen "Ospa dezagun Bizitza" goiburua. Judu on gisa, bere herriko ospakizun erlijiosoetan parte hartzen zuen. Itun Berrian Tabernakuluen edo Sukkot-en jaian (Jn 7, 2), Argien edo Hannukleahren jaian (Jn 10, 22), Mendekoste edo Shavuot egunean (Ac 2,1) eta, jakina, Pazko edo Pesaj juduan (Lc 2, 41). Gainera, judu on gisa, otoitz egiten zuen salmoak errezitatuz. Zenbat aldiz ahoskatu ote zituzten haren ezpainak salmogilearen bertso eder hauek!

63 (62) Sal

Neure ezpainez goretsiko zaitut;
nire bizitza osoan bedeinkatuko zaitut
eta zugana jasoko ditut eskuak otoitzean.
Oso pozik geratuko naiz,
oturuntza eder batez gozatzen duena bezala,
eta nire ezpainek atseginez goretsiko zaituzte.



Jesusek ez zuen bere erlijiotasuna modu aszetikoan bizi izan, mundutik aldenduz. Jainkoarengan bizitzeko zeukan era komunitatean eta modu gizatiarrean bizitzea zen. Kritikoa eta zorrotza zen, baina poza bere jendearekin partekatzea gustatzen zitzaion. Hala, Joanen Ebanjelioan, Jesusen bizitza publikoko lehen agerraldia Kanako ezteietan izango da, eta ura ardo bihurtzean datza, ospakizun hura ez dadin ustel atera.

Ezteiak Galileako Kanan

Hiru egunera, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama. Jesus eta beronen ikasleak ere gonbidatu zituzten ezteietara. Eta ardoa amaitu baitzen, esan zion amak Jesusi:
-Ez dute ardorik.

Jesusek erantzun zion:

-Utz nazazu bakean, emakume. Oraino ez da etorri nire ordua.

Jesusen amak honela esan zien zerbitzariei: «Egin horrek esango dizuen».

Baziren han harrizko sei ur ontzi, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, ehunen bat litrokoa bakoitza.

Jesusek esan zien zerbitzariei:

-Bete ontziak urez.

Haiek goraino bete zituzten. Orduan, esan zien:

-Atera pixka bat eta eraman mahaizainari.

Hala egin zuten haiek.

Mahaizainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, nongoa zen jakin gabe; zerbitzariak, bai, bazekiten, beraiek atera baitzuten ura. Ardo berria dastatu zueneko, senarrari dei egin eta esan zion: «Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta, jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa; zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena».

Bere lehen mirarizko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; honela, bere Jainko aintza agertu zuen, eta ikasleek sinetsi egin zuten harengan.

Ebanjelioko pasarte askotan, Jesus mahai baten inguruan ikusten dugu jaten eta ospatzen. Gainera, badakigu, bere garaiko erlijiotasunaren bazterketa sistema guztiak hautsiz,



Jesusi era guztietako lagunekin jatea gustatzen zitzaiola, eta etsaiek jatun eta zurrutero deitzen ziotela.

Mt 11, 16-19

"Zerekin konparatuko dut garai honetako jendea? Plazetan jolastera esertzen diren eta ikaskideei oihu egiten dieten haurren parekoa da: 'Txirula jo genuen, eta ez zenuten dantzatu; abesti tristeak kantatu genituen, eta ez zenuten negarrik egin. 'Izan ere, Juan etorri zen, jaten eta edaten ez duena, eta deabrua daukala diozue. Gero Gizonaren Semea etorri da, jaten eta edaten duena, eta tripazaina eta zurruteroa dela diozue, ospe txarreko jendearen eta Erromarentzat zergak kobratzen dituztenen laguna. Baina Jainkoaren jakinduria bere emaitzen bidez frogatzen da."

Juduen tradizioan, oturuntzaren irudia Jainkoazko Bizitza osoari buruz hitz egiteko erabiltzen zen. Jada Egipton esklabo bihurtutako hebrearrei askatasuna agindu zitzaien "esnea eta eztia ura bezala darizkion lurraldean" (Ex 3, 17). Jesusek bazkari eta ospakizunetan parte hartu izana promesa horren adierazle nabarmena zen. Eta sarritan erabiltzen zuen oturuntzako irudia bere parabolan. Baina xehetasun bat gehitzen zuen: oturuntza hori normalean bazterrean uzten ditugunentzat zen bereziki.

Oturuntzaren parabola (Lk 14 15, -24)

Hitz hauek entzutean, mahaikide batek esan zion Jesusi: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena!»

Jesusek erantzun zion: «Gizon bat afari handi bat ematekoa zen eta jende asko gonbidatu zuen. Afarikoan, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: "Etorri, dena gertu dago eta". Baina bata bestearen ondoren denak aitzakiak jartzen hasi ziren. Lehenengoak esan zion: "Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren". Beste batek, berriz: "Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren". Eta hurrengoak: "Ezkondu berria naiz eta ezin naiteke joan". Honen guztiaren berri nagusiari ematera itzuli zen morroia. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta morroiari esan zion: "Hoa bizkor herriko plaza eta kaleetan barrena, eta ekarri hona behartsu, elbarri, itsu eta herrenak". «Geroago, morroiak esan zion: "Egin dut, jauna, zuk agindua, eta oraindak badago toki"».

Orduan, nagusiak esan zion: "Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dastatuko"».

Jainkoaren Erreinua, Jainkoaren Bizitza, denontzat dela esaten dugunean, gogoratu behar dugu gutako bakoitzarentzat ere badirela. Gonbidatuta gaude, nahiz eta sarritan sentitzen dugun ez dugula hainbeste merezi. Jesusen Jainkoa ez da gure okarren kontuak zorrotz eramaten dituen Jainko zurruna, Biziazen eta errukiaren Jainkoa baizik. Irrikaz dago ohar gaitzen eta Berarengana itzul gaitzen, ospatzeko.

(Lk 15, 11-32) Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola

Gainera, esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: "Aita, emadazu dagokidan senipartea". Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxi-
ra, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, galdukerian biziz, ondasun guztiak jan. Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoa ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, pentsatzen jarriarik, bere baitan esan zuen: "Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago seme izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala". Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindak



urruti zegoela, ikusi zuen aitag eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme izenik merezi... ". Aitag, orde, esan zien morroiei: "Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eraztuna eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa otordua; zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut". Eta festa hasi zuten. Seme zaharrena soroan zen. Etixerakoan, hurbildu ahala, soinu eta dantzak sumatu zituen. Eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Hark erantzun: "Zure anaia etorri da eta zekor gizendua hiltzeko agindu du zuen aitag, semea onik bereganatu duelako". Biziki haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzatzen zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; eta, horko zure seme hori, zure ondasunak emagalduekin jan dituen hori, etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu". Aitag erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaudete, eta nire guztia zeurea duzu! Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!"»

Bete-bete bizitzeko promesa jaso dugu. Hori lortzeko, askatasunean oinarrituta aukeratu behar dugu, eta geure barruan garatu. Jesusen Hitza eta Espiritua doan eman zaizkigu hori lortzeko.

Ereilea (Mt 13, 3-18)

Esan zien: «Atera zen behin ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian; eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiek, haztean, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun edo hirurogei edo hogeita hamar. Ulertzeko gauza denak uler beza».

GI 6,8

Grina txarra ereiten duenak, grina txarretik heriotza bilduko du; Espiritua ereiten duenak berriz, Espirituagndik betiko bizia bilduko du.

Eta geure kabuz ezin badugu, Biziaren eta Errukiaren Jainkoak lan egiten du guztiok Bera-
rengana iritsi gaitezen. Ez gara mundura sufritzera etorri, bizitza oparoa aurkitzera baizik. Goiburu horrek balio diezagula bizitza den opari handia eskertzeko eta ospatzeko.

Bizitza oparoa (Jn 10, 7-11)

Berrero esan zien Jesusek: "Benetan diotsuet, ni naiz ardiak sartzen diren atea. Nire aurretik etorri ziren guztiak lapurrak eta harrapariak izan ziren, baina ardiek ez zieten jaramonik egin. Ni naiz atea, nire barrena sartzen dena salbu izango da, sartu egingo da; aterako da eta larreak aurkituko ditu.

"Lapurra lapurtzeko, hiltzeko eta suntsitzeko baino ez da etortzen; baina ni bizia izan dezaten eta ugari izan dezaten etorri naiz. Ni naiz artzain ona. Artzain onak bizia ematen du bere ardiengatik".





ELIZAN: Frantzisko aita santuak bizitza ospatzera gonbidatzen gaitu

Elizaren beste irudi bat behar dugu, zeren sarritan triste eta serio aurkezten baita, Frantzisko aita santuak planteatzen du Elizaren bizitza eta misioa, funtsean, gozamina, poza eta pasioa direla. Bere aitasantutza lehen aholku apostoliko batekin estreinatu zuen, izaera misiolaria garrantzitsu bat duena: "Ebanjelioaren Poza" (Evangelii Gaudium, 2013).

EG1

Ebanjelioaren alaitasunak Jesusekin topo egiten dutenen bihotza eta bizitza osoa betetzen ditu. Hark salbatuak izatea onartzen dutenak askatu egiten dira bekatutik, trisuratik, barne hutsunetik eta bakardadetik. Jesukristorekin beti sortzen eta berpizten da alaitasuna. Bertan azpimarratzen du Jesusekin topo egitetik sortzen den pozak gugan sortzen duela mundu guztiarekin jasotako dohaina partekatzea eta eskertzea eta komunitatean ospatzera irteteko gogo.

EG 24

Komunitate ebanjelizatzaile alaiak beti daki «festa egiten». Ospatu eta omendu egiten du garaipen txiki bakoitza, ebanjelizazioan emandako pauso bakoitza. Ebanjelizazio gozoa edertasun bihurtzen da liturgian, ongia egunero zabaltzeko eskakizunaren erdian. Elizak bere burua ebanjelizatu eta ebanjelizatzen du liturgiaren edertasunarekin, zeina era berean, ebanjelizatze ekintzaren ospakizuna baita, eta dohaintza bultzada berrituaren iturria.

Idea hau bere magisteritzaren leitmotiv bat da. Adibidez, 2016an ere, bere izenburuan "poztasun" hitza daraman beste aholku apostoliko bat idatzi zuen: *Amoris Laetitia* edo "Maitasunaren Poza". Bertan, Sinodoaren Familiari buruzko ondorioak garatzen ditu, eta familia bertan bizitza ospatzeko komunitate nuklearra dela esaten digu.

AL 226

Ona da errutina festarekin etetea, familian ospatzeko, pozteko eta esperientzia politak ospatzeko gaitasuna ez galtzea. Elkarrekin harritu behar dute Jainkoaren dohainengatik, eta elkarrekin elikatu bizitzeko gogo. Ospatzen dakigunean, gaitasun horrek maitasunaren energia berritzen du, monotoniatik askatzen du, eta kolorez eta itxaropenez betetzen du eguneroko errutina.

AL 110

Gure Jaunak bereziki estimatzen du bestearen zorionaz pozten dena. Bestearen onaz gozatzeko dugun gaitasuna elikatzen ez badugu eta, batez ere, geure beharretan kontzentratzen ez bagara, poz gutxiarekin bizitzera kondentatzen gara, Jesusek esan duen bezala «zoriontasun handiagoa baitago ematean jasotzean baino» (Eg 20,35). Familiak beti izan behar du bizitzan zerbait ona lortzen duen norbaitek, berarekin ospatuko dutela dakien lekua.

Bada alaitasunaz mintzo dena Frantziskoren hirugarren aholku apostoliko bat ere; *Gaudete et exsultate* edo "Alaitu eta poztu zaitezte". Dokumentu hau 2018an argitaratu zen, eta guztiok deituak gauden santutasunari buruzkoa da. Eta berriz ere, santutasunaren irudia, erredentziorako sufrimendua bilatzen duen diziplina aszetiko gisa aurkeztetik urruan, Frantziskok alaitasuna eta ospakizuna proposatzen ditu Jainkoarekiko benetako lotura baten zeinu gisa.

GE 122

Orain arte esandakoak ez du adierazten izpiritu apokatua, tristea, garratza, malenko-niatsua, edo energiarik gabeko soslai baxua. Santua alaitasunez eta umorez bizitzeko gai da. Errealismoa galdu gabe, izpiritu positibo eta itxaropentsuarekin argitzen ditu besteak. Kristau izatea «Espiritu Santuaren gozamina» da (Rm 14,17), «karitatezko maita-



sunari nahitaez gozamina darraiola, maitearekin bat egitean gozatzen baita maitale oro [...] Horregatik gozamina da karitatearen ondorioa». Haren Hitzaren edertasuna jaso dugu eta besarkatzen dugu «tribulazio handi baten erdian, Espiritu Santuaren pozarekin» (1Ts 1,6). Jainkoari uzten badiogu geure oskoletik atera gaitzan eta bizitza aldatzen, orduan gauzatu ahal izango dugu San Paulok eskatzen zuen hura: «Poztu zaitezte beti Jaunagan; berriro esango dizuet, poztu zaitezte». (Flp 4,4)

Honaino ikusi dugunaren arabera, Frantziskok ulertzen du espiritualtasun kristauak lotura zuzena duela poztasunarekin eta ospakizunarekin. Beharrezko zorrotasuna galdu gabe, bere diskurtsoaren ezaugarri nagusia arauaren aurrean beharrezkoa den malgutasun dosi hori da, ezinbestekoa bihotzak irekia eta eskuzabala izaten jarrai dezan, eta Bizitzari itxitako harrizko bihotz bihur ez dadin. Jesusen espiritualtasuna da, fededun exigentea izanik, Jainkoaren borondatearen azken zentzua beti argi zeukan: "errukia nahi dut, eta ez sakrifizioak" (Os 6,6). Hori da BIZITZA, letra larri, benetako bizitza.

GE1

Jainkoak dena eskatzen du, eta eskaintzen duena benetako bizitza da, gu sortuak izan ginen zoriona. Horregatik bereizi behar dira azaleko poza eta benetako poza, Jainkoagandik datorrena. Evangelii Gaudium-en bereizketa egiteko oinarritzko irizpide bat planteatu zuen: bakartzen gaituen poztasuna da ala besteekiko zabalatasuna eragozten digun poztasuna?

EG 2

Gaur egungo munduaren arrisku larriena, bere kontsumo eskaintza anitz eta izugarria-ekin, tristura indibidualista bat da, bihotz nagi eta zikoitzetik, azaleko plazerren bilaketa gaixotitik, kontzientzia isolatutik sortzen dena. Barne bizitza norberaren interesen baitan ixten denean, jada ez dago lekuri besteentzat, jada ez dira behartsuak sartzen, ez da Jainkoaren ahotsa entzuten, ez da gozatzen haren maitasunaren poz gozoa, ez da sentitzen ongia egiteko gogo bizia.

Halaxe da. Ospatu beharreko bizitza besteekin partekatzen den bizitza da. 2020ko *Fratelli Tutti* entziklika anaitasunari eta adiskidetasun sozialari eskaini zion Frantziskok. Bizitza eta ospatzea merezi duen bizitza ez da geuretzat gordetzen duguna, gorputz eta arima besteei eskaintzen dieguna baizik.

FT 87

Horrek azaltzen du zergatik ezin duen inork nabaritu bizitzaren balioa maite izateko aurpegi konkreturik gabe. Hemen benetako giza existentziaren sekretu bat dago, zeren «bizitzak lotura, komunioa, senidetasuna dagoen tokian bakarrik iraun baitezake; eta bizitza indartsuagoa da heriotza baino egiazko harremanen eta leialtasun loturen gainean eraikitzen denean».

FT 215

«Bizitza adostasunaren artea da, bizitzan zehar desadostasun ugari dagoen arren». Behin baino gehiagotan gonbidatu dut topaketaren kultura bat garatzera, aurkakotasunak sortzen dituzten dialektiketarik harago doana. Poliedro hori osatzeko joera duen bizi estiloa da, alde asko dituen, ñabarduraz betea baina guztiek unitate bat osatzen duteneko, izan ere, «osoa zatia baino handiagoa da». Poliedroak adierazten duen gizartean, desberdintasunak elkarren osagarri dira, elkar aberastuz eta argituz, horrek eztabaidak eta susmo txarrak sortzen baditu ere.

Eta nortzuk dira besteak? Nor da zaindu behar dudana lagun hurko hori? Ondotxo dakigu erantzuna, praktikara eramatea kostatzen bazaigu ere. Behin, Jesusi galdetu zioten, eta samariar onaren parabolarekin erantzun zien (Lk 10, 25-37). Frantziskok JMJ 2023ko ongi-etorri hitzaldian, Lisboan, azpimarratu zuen Elizak mundu guztiarentzat zabalik dagoen etxea izan behar duela:



"Lagunok, argi izan nahi nuke zuekin, badakit gorrotoa diezuela eta hitz hutsei: Elizan denontzat dago lekua, denontzat! Elizan inor ez dago soberan, inor ez dago soberan, denonk kabitzen gara bertan, garen bezala, denok. Eta hori Jesusek argi eta garbi esaten du jaun hark prestatu zuen oturuntzarako deitzera apostoluak bidaltzen dituenean. Esan zien: zoazte eta ekarri denak: gazteak eta zaharrak, osasuntsuak eta gaixoak, zintzoak eta pekatariak, denak, denak. Elizan denontzako lekua dago. 'Aita, baina ni zorigaiztokoa naiz, Ba al dago lekuri niretzat? Denontzako lekua dago. denontzat, bakoitza bere hizkuntzan. Denak, denak, denak! Ez da entzuten. Esan berriz ere Denak, denak, denak! Eta hori da Eliza, guztion Ama! Denontzako lekua dago!"

Azkenik, ospakizun estiloari buruzko ohar bat. Frantziskok bizitza ospatzeaz hitz egiten duenean, ez da ari xahuketa eta arrandikeriaz. Benetako bizitza sinpletasunetik, benetako-tasunetik eta soiltasunetik partekatzen da. Guztion Etxearen zaintzaz diharduen 2015eko Laudato si' entziklikan, Frantziskok gogorarazten digu badagoela alternatiba bat kontsumismoak proposatzen digun zoriontasun ereduaren aurrean.

LS 223

Libreki eta kontzientziaz bizitzen den neurritasuna askatzailea da. Ez da bizitza murriztagoa, ez da intentsitate txikigokoa, alderantziz baizik. Egia esan, gehiago gozatzen dutenak eta une bakoitza hobeto bizitzen dutenak dira han-hemenka mokoka ibiltzeari eta beti ez daukatenaren bila ibiltzeari uzten diotenak, eta pertsona bakoitza eta gauza bakoitza baloratzea zer den esperimendatzeko dutenak, kontaktua hartzen ikasten dutenak eta sinpleenarekin gozatzen dakitenak. Horrela, ase gabeko beharrak gutxitzeko gai dira eta nekea eta obsesioa arintzen dituzte. Litekeena da gutxi behar izatea eta asko bizitzea, batez ere beste plazer batzuk garatzeko gai denean eta pozik dagoenean anaitasunezko topaketetan, zerbitzuan, karismen hedapenean, musikan eta artean, naturarekiko harremanean, otoitzean. Zorionak itsutzen gaituzten behar batzuk mugatzen jakitea eskatzen du, horrela, bizitzak eskaintzen dituen aukera anitzak baliatzeko prest geratuz.





TRADIZIO MARISTAN: Bizitza ospatzea anaitasunaren seinale da

Bizitza Marista La Vallako mahaiaren inguruan sortu zen. Eta mahai horretan partekatzen zenak misioan jarraitzeko indarra ematen zuen, indar fisikoa zein espirituala. Marcelinok eta lehen anaiek anaitasunaren gozamenen aurkitu zuten Bizitza ospatzeko arrazoiak. Gozamen hura dohain bat zen, eta, beraz, munduko elizbarruti guztietara eraman beharrekoa. Eta horrela geratu zen jasoa anaiei Konstituzioetan:

Konstituzioak eta Estatutuak 36

Fundatzailearen eta lehenengo anaiei familia espirituan inspiratuta bizi dugu geure anaitasuna, horrela gugandik nahi zuena errealitate bihurtuz: "Maita ezazue elkar Jesukristok maitatu zintuzten bezala. Ez dadila egon zuen artean bihotz bakar bat eta espiritu bat bera besterik". Gure komunitateak, La Valla bezala, kide bakoitzari bere bizitza Jesusengan zentratzen eta senidetasunezko maitasunean hazten laguntzen dioten etxeak dira. Horrela, komunitate marista adiskidetasun, sinpletasun, adeitasun eta bizitza ebanjelikoko eremu bihurtzen da, misioaren zerbitzura.

Gure anaia Ernestok ere, nagusi jeneralak, hala adierazi zuen 2025?eko irailean Filipinetan egingako "Guztionezako Etxea, bizi ibaia" deituriko XXIII Kapituluko Orokorreko deialdi zirkularrean:

N.D. de l'Hermitagen bezala, leihoak zabalik dituen etxea, gure bihotza ukitzen duen Espirituaren argia bilatzen dugu, gure konbertsioa bultzatzen du eta anaitasunaren dohaina alai-kiro bizitzera animatzen gaitu, gure komunitate eta obra marista bakoitza "etxe bat izan dadin denontzat: anaia, laiko, laika, mutiko, neska, mutil, familia, bisitari... denontzat. Aukera paregabea gaur egungo "Hermitage Berri" baten berreraikuntza irudikatzen du.

Alaitasuna eta familia espiritua, estilo maristaren bereizgarriak, Marcelinok lehen anaiekin izandako esperientzietatik jaso genituen.


"Padre de hermanos" (Anaiei aita) lanean, Federico-Andrés Carpinterok istorio horietako batzuk biltzen ditu. Esate baterako, Silvestre anaia, aita Champagnatek ikastaro honetako posterrean lepagainean daramana, bizitasunaren adierazpen polita da. Anaia Silvestrek, bihurria, jostalaria, txantxen eta festaren laguna, kontrastea egiten du gizarte zorrotz eta serio batekin, non "erlijioso onak" eutsi egin behar dien formei eta ez erakutsi bere emozioak, nahiz eta hauek bizitza ospatzera eraman.

Aita Champagnatek argi dauka, eta anaiei esaten die erlijioso ona izateko positiboa eta jostalaria izan behar dela, umore ona eduki behar dela eta enpatikoa izan.

BIHURRIKERIAK (orr. 138-140)

Anaia Silvestre oso bihurria zen. (Izenak berak adierazten du zerbait). Txikia zen, pikarria eta zintzoa. Marcelinok maite zuen. Hamabi urte zituela iritsi zen Mariaren anaitxoaren komunitatera.

Izatez bizia eta urduria zenez, ezin zen egon lasai, bihurrikeriaren bat asmatu gabe. Gauza garrantzitsuetan ondo portatzen zen, baina besteetan... Egun batean orgatila bat hartu eta patioan bueltaka ibili zen. Hori oso aspergarria zenez, berarekin sartu zen sukaldetan, ikasgeletan eta, azkenean, ikasketak aretoan izan zituen. Anaia batzuek Marcelinori kontatu zioten. Hark, ondo ezagutzen zuenez, esan zien:



-Lastima lehen solairura bakarrik igo izana. Gabararaino igo balu, sai bat emango nion. Nahiago dut bihurrikeriak egiten ikusi aspertuta baino.

Gainera ez dut ulertzen zer kalte egin zezakeen horrekin. Zuek ere umeak eta jolastiak izanak zarete. Zuek daukazue errua bakarrik uzten duzuelako. Ikasketak eta gauza serioak beste konturi ez daukazue. Nola ez da ba aspertuko mutikoa?

Baina, Marcelinok defendatzen bazuen ere, Silvestre anaia atsedean gabe jarduten zuen nor zirikatuko. Arratsalde batean eskaile-



rapean ezkutatu zen, anaiaren bat handik noiz pasako zain. Eskailerak 40 maila zituen, eta egurrezkoa zen. Norbait eskaileretan gora sumatu zuenean, alde batetik bestera mugitzen hasi zen. Igotzen ari zen gizajoa arnasestuka ari zen Silvestre jiratu egin zen bere biktima nor zen ikusteko. Eta sekulako sustoa hartu zuen Marcelino zela jabetu zenean.

Bizitza ospatzeak duen garrantzia gogorarazten digun gertaera bat Estanislao anaiarena da. Aita Champagnatek eta Estanislao anaiak elurretan galduta, bizitza arriskuan ikusten dute. Marcelinori ez zaio ezer hoberik bururatzen Ama Onarengan konfiantza osoa jartzea baino. Ziur dago harengana fedez eta debozioz jotzen badute, Ama Onaren laguntza eta babesa izango dutela. Haien bizitza Jainkoaren eskuetan dago, eta psadizo honetakoa bezalako amaiera zoriontsuarekin, badakite Bizitza ospatzea Jainko Onaren eskuetan jartzea dela, eta ematen digun guztia eskertzea.

OROI ZAITEZ (orr. 92-93)

Juan Bautista anaia gaixorik zegoen Bourg-Argentalen. Marcelinok bisitan joatea erabaki zuen, negu gorrian bazen ere. Elurra egin berria zegoen. Bisitaren ondoren, Marcelinok La Vallara itzuli nahi izan zuen. Estanislao anaiarekin, komunitatera iristen ziren gazteez arduratzen zenarekin, Pilat mendia, 1434 metroko altuerakoa, gurutzatzea erabaki zuten. 2 ordu zeramatzaten bidean, mendian gora, galdu zirenean. Ezinezkoa zen han biderik aurkitzea.

Elur bisutsak gogor jotzen zien aurpegian. Estanislao anaia ez zen jada ibiltzeko gauza. Marcelinok besotik heltzen zion. Eta esaten zion: -Animo! Ama Birjinak lagunduko digu. Handik pixka batera, Estanislao anaiak konortea galdu zuen. Marcelinok lurrean utzi zuen kontu handiz, eta Mariari errezatu zion:

-Oroit zaitetz, Amabirjina maitea, sekula ez dela entzun zure babesa eta laguntzaren eske etorri den inor zuk bertan behera utzi duzunik...

Otoitza amaitu zuenean, Estanislao anaia zutiarazi eta ibiltzen saiatu zen. Hanke ia ez zioten obeditzen. 10 pauso ere ez zituzten artean ibiliak, zeuden lekutik hurbil argi bat ikusi zutenean. Bertara hurbildu eta etxe bat aurkitu zuten. (Gau hartan, kasualitatez, baserritarrari ukuilura ganadua ikustera joatea bururatu zitzaion, baina ataritik bueltan, ukuilura ematen zuen etxe barruko atea erabili gabe). Marcelinok eta Estanislao anaiak familia horren etxean igaro zuten gaua. Hala salbatu ziren.

Agian Harkaitzeko Ura Institutuaren dokumentuan argiago adieraziko da espiritualtasuna zaintzearen garrantzia anaitasuna sustatzeko, eta aldi berean, anaitasunaren zaintzan arreta jartzea,

Espiritualtasuna sendotzeko. Komunitateak eta espiritualtasunak elkar berrelikatzen dute Bizitza sortzeko.

Harkaitzeko Ura 118

Gure fedea otoitz komunitarioaren bidez partekatzea eta ospatzea elementu indartsua da elkartasuna eraikitzeko. Otoitz egitera eta Eukaristia ospatzera elkartzen garen bakoitzean, Jesusekiko batasunak geure buruarekiko, besteekiko, sorkuntzarekiko eta Jainkoarekiko erabateko elkartasunera bultzatzen gaitu. Zenbat eta sakonkiago bizitzen ditugun gure eguneroko bizitzako uneak eta besteekin eta munduarekin erlazionatzeko modua, orduan eta esanguratsuagoak izango dira gure otoitza eta ospakizun liturgikoak.

Hau bereziki garrantzitsua da Bizitza heldutasunez eta sakonki ospatu nahi badugu. Kontua ez da ospatzeagatik ospatzea, ezta alaitasun bortxatuko jarreraren erortzea ere. Egia esan, gure mundua konplexua da eta ezbehar ugari dago. Bizitza benetan ospatzeko ez ditugu alde ilunak alde batera utzi behar.

Harkaitzeko Ura 125

Munduaren panoramak harritu eta nahastu egiten gaitu. Alde batetik, naturaren edertasuna eta aniztasuna ospatzen ditugu bere harmonia zoragarriarekin eta gizateria-



ren aniztasun kultural aberatsaren aurrean pozik sentitzen gara; baina aldi berean, hor dauzkagu indarkeria eta segurtasunik eza, pobrezia eta etsipena, hiesa eta haurren gehiegikeria, narriadura ekologikoa eta gosea, analfabetismoa eta ezjakintasuna.

Harkaitzeko Ura 110

Espiritualtasun marista eta kristauan ondo sustraituta, gauzatu ahal izango dugu geure misioa komunitatean, gehien behar dutenei arreta jarriz eta Jainkoak oparotasunez ematen digun Bizitzaren lekuko izanez. Zalantzarik gabe, arrazoi on bat Bizitza ospatzeko.

Anaia eta laiko maristak garen aldetik, elkartasun espiritua garatzen saiatzen gara, familiei, komunitate erlijiosoei eta bestelako bizimodu komunei familia bihurtzeko aukera ematen diena. Etxe horietan, gazteei hazten laguntzen zaie, adinekoak zaintzen dira, ahulenei arreta berezia ematen zaie, eta barkamenaren ukendua ugari ematen da zauriak sendatzeko, eta festako ardoa ere bai, hainbeste bizitz a partekatu ospatzeko.

Harkaitzeko Ura 121

Komunitate multikulturalek beste tradizio eta kredo batzuen aberastasunean parte hartzera gonbidatzen gaituzte, errespetuan eta tolerantzian haztera, eta Jainkoaren presentzia maitekorren ugaritasuna ospatzera. Fundamentalismorako, xenofobiarako eta bazterkeriarako edozein joeraren aurkako testigantza berezia ematen dute.





Bidaia bat Kartelean zehar

Aurtengo kartela sinbolismoz eta esanahiz beteta dago, elementu bakoitza bizitza maristaren inguruko mezu sakon bat transmititzen saiatzen da.

Bizitzaren Zikloa

Kartelean motibo zirkularrak bizitzaren zikloa sinbolizatzen du, jarraipenaren irudikapen bat. Zirkuluak gogora ekar diezaguke bizitza amaierarik gabeko bidaia dela, alaitasun, ikasketa eta hazkunde momentuz betea.

Familia Espiritua

Kartelaren behealdean, familiaren espiritua irudikatzen duen irudi bat dago. Hau ez da ohiko familia bat, bere inklusio eta integrazioagatik nabarmentzen den bat baizik. Hemen, denak dira ongi etorriak, maitasunaren eta onarpenaren balio maristak islatzen baitira.

Mahai partekatua: Vallarekiko lotura

Mahai baten inguruan bildutako familia baten irudiak gogora dakarkigu lehen anaia maristek La Vallan nola partekatzen zuten bizitza. Elikagaiak ez ezik, esperientziak eta fedea ere partekatzen dira.

Kandela: argia eta denbora partekatua

Mahaiaren erdian dagoen kandelak sinbolismo bikoitza du. Kristau fedean, Jesus irudikatzen du, iluntasunean gidatzen duen argia bezala. Gainera, kandelak denboraren eta bizitzaren joana sinbolizatzen du, baina komunitatean partekatzen diren denbora eta bizitza dira.

Hiru Bioletak: Mariaren Espiritua

Mariaren espiritua kartela apaintzen duten hiru bioletetan agertzen da. Lore hauek umiltasuna, apaltasuna eta soiltasuna irudikatzen dituzte, Mariak haragitu zituen eta maristek beren eguneroko bizitzan bilatzen dituzten bertuteak.

Marcelino Champagnat


Kartelaren erdian, Marcelino Champagnat dago, Anaia Maristen fundatzailea. Haren presentzia bere ondarearen eta funtsezko irakaskuntzaren etengabeko oroigarria da: "Hezteko, maitatu egin behar da". Mezu hau bunbuilo ikono batekin eta bihotz batekin nabarmentzen da, maitasuna eta komunikazioa sinbolizatuz.

Anaitasunaren eta Xumetasunaren Ospakizuna

"Ospa dezagun Bizitza" goiburuak anaitasuna eta xumetasunaren ospatzera gonbidatzen du komunitatea. Marcelino Champagnatek ekintza xume, benetako eta ustekabekoen bizitza bizi eta sustatu zuen, eta espiritu hori kartelean islatua dago, Marcelino Champagnaten eta Silvestre anaiaren arteko pasadizo hartan. Ospakizunak ez du zertan izan arranditsua; eguneroko keinu txikiak dira benetan zentzua ematen dutenak.

L' Hermitage: 200 urteko historia

Kartelaren goialdean dagoen Hermitagearen irudiak bere eraikuntzaren 200. urteurrena gogorarazten du. 1824an hasi ziren Marcelino eta





lehen anaiak etxe hau eraikitzen, Institutu Marista osoarentzat sinbolo esanguratsua bi-lakatu dena.

Bakearen Ikurrak: Itxaropen Mezua

Askotan gatazkek markatutako mundu honetan, bake ikurrak daude kartelean, hala nola gaztearen atzamarretan ezkerrean dagoen bake keinua eta bakearen ikur adierazgarria.

Alaitasun Espiritua: Konfetiak eta Festa

Azkenik, alaitasun eta ospakizun espiritua konfeti eta jai irudiekin irudikatua dago, adibidez eskuineko danborrak. Elementu horiek bizitza alaitasunez eta esker onez ospatzen duen komunitate baten kemena eta gogoia transmititzen dute.

Kartelaren egitura

Kartela hiru zati nagusitan banatua dago:

- Behealde: La Valla inguruko ospakizuna nabarmentzen da, komunitate maristaren oinarria eta jatorria sinbolizatuz.
- Goialdea: L'Hermitage nabarmentzen du, oraina maristen historia aberatsarekin lotuz.
- Erdialdeko zatia: Marcelino Champagnat, kartelaren bihotza, komunitate maristaren iragana, oraina eta etorkizuna lotuz.



HILEROKO BALIABIDEAK LEMA LANTZEKO

Iraila: Festarako prestaketak

Edozein festak prestaketa batzuk behar ditu, modu esanguratsu eta bereziagoan ospatzeko aukera ematen digutenak. Hastera doan ikasturte honetan, Bizitza ospatu nahi dugun honetan, has gaitezke geure buruari galdetzen zerk egiten duen gure bizitza Bizitza bakar, benetako eta zentzuz betea izatea

Urria: Edozein aitzakia da ona handikiro ospatzeko

Bizitza ospatzeko aukeraz beteta dago eta ez dugu arrazoi berezirik behar horretarako. Ohituta gaude beti motibo on baten bila ibiltzen, gure bizitza bera eta gure senideena ospakizunaren motibo handiena dela pentsatzera gelditu gabe. Hilabete honetan saia gaitezen eguneroko momentu txikietan alaitasuna aurkitzen eta lorpenak, handiak zein txikiak, ospatzen.

Azaroa: Mundu guztiak dauka Irekua mahai honetan

Zer izango litzateke bizitza denok berdina bagina eta berdin biziko bagina? Desberdinean edertasuna aurkitzea da anaidi maristaren ezaugarrietako bat. Familia handi batean bezala, denok dugu leku bat mundu honetan, eta gure aniztasuna ospatu behar dugu. Jar dezagun arreta gehien behar dutenengan, bereziki oraindik beren eskubideak errespetatzen ez zaizkien haurrengan.

Abendua: Biristear den bizitza berria ospatzea

Haurdunaldi bateko bederatzi hilabeteek itxaroten irakasten digute. Irrikaz egoten gara Berrri Ona noiz iritsiko, ospatu ahal izateko. Itxaroten ikasteak bizitza baloratzen, gauza segurutzat ez ematen laguntzen digu. Abendu honetan, Gabonetarako prestatzen gara eta aurrera begiratzen dugu itxaropenez, hasiera eta aukera berrien zain.



Urtarrila: Bizia ematea bakea falta den lekuan

Bakerik ez dagoen tokian bizia ematea bizitza besteen zerbitzutik ospatzea da. Besteei laguntzeko eta etorkizun hobe baten alde lan egiteko konpromisoa da gure asteko konpromisorik handiena. Urtarrileko hilabete honetan, hasi berri den urte honetan, aldaketarako eragile izatera eta mundu zuzenago eta baketsuago baten alde egitera deituak gara.

Otsaila: Bizitza zaintzea galdu ez dadin

Gure burua eta ingurukoak zaintzen ditugun bakoitzean, bizitzak iraun dezan laguntzen ari gara. Hilabete honetan, une bat proposatzen dugu gelditzeko eta hausnartzeko nola zaintzen dugun geure inguruko pertsonen bizitza, benetan konprometitzen gaituztenena. Izan ere, Bizitza eman diguten opari bat da, eta hura zaintzeko erantzukizuna daukagu.

Martxoa: Bizitzak beti aukera berri bat eskaintzen du ospatzeko

Batzuetan desmotibatuta sentitu gaitezke, edo gutxietsi egiten dugu geure burua, edo errudun sentitzen gara. Garizuma berriz ere zutitzeko deia da, edertasuna eta alaitasuna beti aurki ditzakegula gogoratzekoa, eta bizitzak eskaintzen dizkigun aukerak eta guk bizitzari eskaini diezaiokegun guztia aitortzekoa.



Apirila: Gainezka egiten duen bizitza, ospakizun bihurtzen den bizitza

Udaberria iritsi da eta bizitzak gainezka egin du. Kanpo zabalean ibilaldi bat eginez gero, naturaren oparotasuna ikusiko dugu, eta benetako ospakizun bat biziko dugu. Bizitza opari bat da benetan, altxor bat. Hil honetan Jesusen Pazkoa ere ospatuko dugu: bizitza oparoa, komunitatean partekatuko duguna, eta Bizitzaren promesa denontzat.

Maiatza: Bizitzako egunerokotasuna ospatzea

Egunak aurrera doaz. Bata bestearen atzetik. Errutina berberak, pertsona berberak, jarduera berberak. Egunak beltzez gure egutegian. Asko. Baina ... Eta guk egun gorri bihurtuko bagenu? Eta egutegiko egun bakoitza OSPATZEKO arrazoi bihurtuko bagenu? Ospa dezagun errutinak ditugula, ospa dezagun pertsonak ditugula BIZITZA egunez egun partekatzeko. Egunero BIZITZA berria eginez, errutina bakoitzean, pertsona bakoitzean, ekintza bakoitzean, ... OSPATU DEZAGUN GURE BIZITZAKO EGUN BAKOITZA!!! ARRAZOI ASKO DITUGU!!! !.

Ekaina: Bizi izandakoa eskertzea, ospatzeko

Bizitza ospatzen dugu oparitu zaigun guztia aitortzean. Marista garen aldetik, dena eman duten eta ematen jarraitzen duten hainbeste hezitzaile, anaia zein laiko maristengandik jaso duguna ospatzen dugu. Zeinen zoriontsu sentitzen garen! Eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari eta esker oneko sentitzen gara bizitza oso eta benetakoa bizi ahal izateagatik. Eta amaitzeaz daukagun ikasturte honetan, zergatik ematen ditugu eskerrak?

